
LITERATURA

LITERATUR KRITIKA

“NIK ERREMERRE HITZ EGITEN DUT, ETA ZER?”, ANJEL LERTXUNDI
Elkarlanean, 2000

Arazoa ez dago niregan.

Konplexuen jatorria ez dago “akatsa” edo “ezberdintasuna” duenarengan, ingurukoek “akats” edo “ezberdintasun” hori antzemateko eta onartzeko, deitzeko zein errespetatzeko duten moduan baizik. Hauxe datorkigu esatera Anjel Lertxundi “Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?” liburuan.

Betori gurasoek erremerre eta kirrimarro dela esan diote; erreak ez omen ditu ondo ahoskatzen. Betori, ordea, besteen antzera hitz egiten duela iruditzen zaio, harik eta eskolara joaten den arte. Eskolan, lagunak burlaka hasiko zaizkio eta Beto orduantxe konturatuko da bere ezberdintasunaz. Gurasoek, Betoren “akatsa” sendatzeko, Rosa izeneko logopeda batengana eramango dute. Zergatik joan behar du berak logopedarengana, ordea? Horrek gaixo dagoela esan nahi al du? Betok behala ulertzen du ez duela sekula erreak ondo esatea lortuko, eta beraz, soluzio bat aurkituko du: erreak dituzten hitzak saihestuko ditu, eta horien ordeaz, errerik ez dituztenak erabiliko. Behin, eskolara Susana izeneko neskato bat etortzen da, zizibaza dena. Susanak ez dio Betoren erre esan ezintasunari erreparatzen. Betok Susanari esker onartuko du bere ezberdin-

tasuna eta erremerre izatearen alde onak kontutan hartuta," Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?" esango du.

Denbora, egitura, espazioa eta pertsonaiak: denak bat. Lehen aldi zurrunbilatsu batetik, argibiderantz egiten duen orain aldira jauzi egiten du Betok; denbora iragaite honetan, espazioaren, egituraren eta pertsonaien tratamendua guztiz lotuta daude. Paralelismo argia dago, denbora eta egituraren aukeraketan, pertsonaien izatearen eta espazioaren erabileraren artean.

Bi denbora nagusi aurkezten ditu liburuak: 1. Lehen aldia: Betoren "arazoa" aurkezten da. Gaixo dagoenik onartzen ez duen denbora da. Denbora honi dagozkion pertsonaiak gurasoak, lagunak eta logopeda dira. 2. Orain aldia: "arazoa" agertarazten duen momentua. Denbora berri honetako pertsonaia Susana da. Betok desberdina dela onartuko du.

Kanpo egiturari dagokionean, bi atal nagusi bereiz daitezke: lehen atalean arazoa aurkezten da, eta bigarreanean, arazoari irtenbidea ematen zaio.

Kanpo egituraketa orokor honi, barne egituraketa sailkatuago bat dagokio, eta honetan, bost azpisail bereizten dira:

1. Betoren arazoaren aurkezpena (etxean).
2. Betoren arazoaren harrera (eskolan).
3. Betoren arazoa zuzendu nahia (logopedaren kontsultan).
4. Beto irtenbidea aurkitu nahian.
5. Betok Susana ezagutzen du.

Lehenengo hiru azpiatalak kanpo egituraren lehen zatiari dagozkio, hau da, arazoa edo akatsa deskribatzen den aldiari, eta azken bi azpiatalak, kanpo egituraren bigarren zatiari dagozkio: irtenbidea edo soluzioa aurkitzen denekoari.

Egiturekin batera, lau espazio agertzen dira: barne egiturari dagozkion lehenengo hiru ataletako bakoitzari espazio bat eta kanpo egituraren bigarren atalari laugarrena:

1. Etxea: Betori etxean esango diote lehenbizi erremerre dela.
2. Eskola: Beto eskolan kontu emango da bere desberdintasunaz.
3. Logopedaren etxea: arazoa sendatzeko lekua izanen da.
4. Laugarren espazioa, espaziorik eza litzateke: Rosa eskolan ezagutzen du baina Rosarekin izango duen harremana ez zaio espazio eta denbora finko bati egokitzen. Rosa aurkezteko ez dauka espazio premiarik.

Arestian deskribatutako egiturak, espazioak ezezik, pertsonaiak ere harremanatzen ditu:

1. Etxeko pertsonaiak = gurasoak dira.
2. Eskolako pertsonaiak = lagunak.
3. Medikua = Rosa da.
4. Benetako laguna = Susana.

Gurasoak, lagunak eta logopeda, "arazoa" ikusten duten pertsonaiak dira. Betorengan eragina izango dutenak. Pertsonaia hauen aurrean, haserre agertzen da. Ez da eroso sentitzen. Erantzun bat bilatu beharra dauka, ez baitute den bezala onartzen.

Susana oster, inguruko en eraginik nozitzen ez duen pertsonaia da. Ez dauka ezer azaldu beharrik. Susanarekin ez dauka arazorik. Susanak ez dio arazorik ikusten. Susanak, ordurarte ezkutagarri iruditu zaion Roberto izena polita dela esaten dio. Susanarekin ez dauka ezer ezkututzen ibili beharrik. Susanarekin Beto da, den bezala onartzen du.

Ezberdinak ez direnei zuzendutako liburua. Ipuinaren irakurketa bukatzean, zera pentsa lezake batek: erremerre hitz egiten duten guztiek ez dutela errerik gabe hitz egiteko irudimen eta hiztegi aberatsaren jabe egiteko aukerarik. Ez eta zizibaza hitz egiten duen Susana bat ezagutzeko modurik ere. Nola, beraz, konplexua uxatu? Kontua da, liburua, hain zuzen

ere, eragileei zuzenduta dagoela eta ez erremerreei edo kirrimarroei. Erreak ondo esaten ez dutenek ez dute arazorik, erreak gaizki esaten dituztela ikusi eta ulertzen ez dutenek baizik.

“Eta zer?” galdera, Betoren heldutasun seinalea da. Eragileek gaixotasuntzat edo normaletik kanpo dagoena baztertzeko erabiliko dituzten argumentu edo ekintzen aurrean defendatzeko erabilitako galdera erretorikoa.

Izen-abizenen aukeraketak, esaldien joskerak eta erredun hitzen eta hitz hauekin eraikitako esaldien eraiketak aberatsa eta egokia egiten dute testua; “r” fonema “g”-ez ordezkatzek oso entretenigarri egiten du irakurketa, irakurlea, minutu batzuez, erremerre izatera bultzatzen duelarik.

Ana Urkiza